

ANTONIO MACHADO
(*Galerias-LXVIII*)

Egun argitsu baten aizeak,
jazmin-usaiñez, biotzean
dei: —Usain onen truk, zure lorak
daben usaiña nai dot eroan.

—Larrosarik ez nire baratzak.
Onezker o il dira guztiak.
Orduan berak: —Orri zimelak
daroakedaz ta ur-negarrak...

Aizeak iges... Nire biotza
Odol-jario... Zori gaiztoa!
—Nun ete dago zure baratza?
Zure baratza, ene gogoa!

DIRAUKET

EZKI ILLA

Oi ezki zar!
ur loaren
ispilluan
zara jausi,
bekokia bean,
sartaldera begi.
Enborra aus eutzuna
etzan ipar miña,
ezta egurgiña
aizkora zorrotzez;
ak ba-ekin barriz
erneko xiñana.

Zure ats sendoak
dei eutson Balbe'ri,

kabige, ta antzia
zelai-ezki gaztek,
ikusiz zerori.
Oldozkun-egarri
zintzalako noski,
eta zure buru
eskerga ta zarrak
anai —urrin— kantak
bai zitun entzuten,
txit bakartsu.

Soiñean zeukan zuk,
joranez gorderik,
zeure gríña-miñen
txindarra oraindik:
eta biotzean,
Pegaso'ren azi
gerorik bagea,
itxaspera doan
euzkiaganako
naimin xaloaren
azi izugarria.

Inguruentzat bai
samiña sakonik,
ostoren zangarra
orriuts, billoisik!

Gaurgero etzara
Illargi'ren kuma,
ezta aizeñoaren
par-lore sorgiña,
ez ixar zaldunan
makil zut urdiña.
Ez yatzu itzuliko
bizi-udalena,
ez zuk ikusiko
azaro gardena.
Igel-abi izango
ta txiñurriena.
Ule soil berdetzat

asunak zaukakez,
ta uaitzak gau batez
irri dariola,
samiñetan dautzu
eroango oskola.

Oi ezki zar!
ur loaren
ispilluan
zara jausi.
Nik ikus zindudan
illun-abarrean,
eta gaur bertan dot
konta zure illeta,
neurea be baita.

F. GARCÍA LORCA